

# “Ongi etorri Sarako lezera!”

*Sarako lezeen bisita  
gidatua Pontx  
pailazoarekin!*



**HORRON  
PONTX**



**SARAKO  
LEZEAK  
DE SARRE  
GROTTES  
ON**



**PAYS  
BASQUE  
EUSKAL  
HERRIA**

# ONGI ETORRI LEZEETARA!

Sarako lezeak bisitatzeko asmoz elkartu gara gaurkoan! Ordea, gidaria ez da etorri eta ondorioz ezin lezera sartu... Edo hala izango litzake Pontx ez balitz inguruan ibiliko. Bisitariek Pontx pailazoarekin Sarako lezean murgiltzeko aukera izango dute. Gidari sudurgorriak bertako bitxikeriak eta misterioak deskubriaraziko dizkie hurbildu direnei. Lehen gizakien bizimodua, lezearen osaketa, bertako bizidunak eta baita mitologiaren aipamena ere. Bisita ibiltari honetan umorez eta modu ludikoan Sarako lezea eta bere bihotza deskubritzeko aukera huts egingo duzue?

IRAUPENA: ordubete  
HIZKUNTZA: Euskara  
AKTOREAK: Pontx pailazao



# ELKARLANA

Proiektu hau elkarlan batekin abiatu da. Sarako Lezeen eta Horkonpontx elkartearen arteko lankidetzari esker proposatu daitezke bisita berezi hauek. Sarako herriko etxeak eta Herri Elkargoak sustengaturik.

## HORKONPONTX ELKARTEA

Pontx pailazoaren proiektua aurrera zihoala ikusirik, ikusgarri guzti hauek produzitzeko, Pontx pailazoak bere elkarte propioa sortu zuen 2020an HORKONPONTX-en izenean. Pontx pailazoaren ikusgarrien eta animazioen atzean den elkarte da HORKONPONTX Elkarte. Azken honek, clown/pailazo ikusgarrien produkzioa eta aurkezpenak produzitzen ditu, euskaratik eta euskaraz. Jendeari alaitasuna, umorea eta euskarazko antzerkia helaraztea du helburu, baita haurrei zuzendutako animazioan, hospitale arloko parte hartzean eta euskararen bultzatzean parte hartzea ere. Ipar Euskal Herrian nagusiki ibiltzeaz gain, hego Euskal Herrian ere saioak eskaintzen ditu. Oholtza gaineko esperientzietatik haratago, zahar etxeetan ibili izan da, baita beste ekitaldietan ere bai.



HORKON  
PONTX

## SARAKO LEZEAK

Saran eta inguruetan dagoen kareharrizko mendigune izugarria barrunbe ugari dago eta horietako formazio geologiko atipiko duen bat LEZEA edo SARAKO LEZEAK izena du. Urte osoan ia, bisita gidatuak proposatzen dituzte bertan hizkuntza ezberdinetan. Gidari talde profesional eta dinamiko batek gidaturik bisitari orok Sarako lezera sartzeko aukera du. Horrez gain, museo bat eta monumentuak eta hileta-errituak erreproduzitzen dituen parke megalitiko bat libreki bisita daitezke bertan.



# HELBURUAK

Bisitan zehar helburu ikaspen ezberdinak transmitituko ziazkie bisitariei; beti ere modu didaktiko, ludiko eta parte hartzailean. Pontxi esker, Sarako lezearen historiaz baino, bere osaketaz eta bizitzaz jakiteko aukera izango da. Urak kareharrian duen eragina, garaiko lezearen erabilpena, bertako bizidunen zaintza eta euskal mitologiaren aipamena ere bai.

## ZEIN GAI AIPATUKO DIRA?

- Lezearen jatorria
- Lehen gizakien bizimodua
- Kareharriaren bilakaera eta uraren lana
- Garaiko bizidun ezberdinak
- Gaur egungo saguzarren presentzia
- Lezearen eta ingurunearen zaintza
- Euskal Mitologia



# INFORMAZIO PRAKTIKOA

Bisitariak iritsi eta harrera emango zaie. Bisita hasi baino 15 minutu lehenago bertan egon beharko dira. Ondotik, hasierako pundura lagunduak izango dira Pontx agertu baino lehen (*eguraldi txarra balego aterbea dago*).

Pontx pailazoak bisitariak agurtu ondotik lezearen bisitari ekingo dio taldeak. 45 minutuko bisita gidatua Lezearen barruan.

Bukatzean bisitariak Pontxekin momentu berezi baten partekatzeke aukera izango dute; argazkiak, solasaldiak eta bestelakoak.

- BISITARIEN KOPURUA: 30 pertsona (ikasleak lagunduak izan behar dira)
- ADINA: 5 urtetatik aurrera

## EGUTEGIA

BISITA EGITEKO EGUNAK

NORBANAKOAK:

- APIRILAK: 2-4-6-8

ESKOLAK:

- MAIATZAK: 4-5-11-18-25
- EKAINAK: 22-23-24

ERRESERBAK: [infogroupes@grottesdesare.fr](mailto:infogroupes@grottesdesare.fr)



# EDUKIA



# KONTAKTUA

[infogroupes@grottesdesare.fr](mailto:infogroupes@grottesdesare.fr)

+33 5 59 54 21 88

